

# Musikari handiak intimitatean

ABUZTUAK 3 (Donostiako Jazzalditik 11 egunera), Zumaiaiko Itzurun tabernako terraza (Kursaalekotik 31 kilometrora). Euskal musikariak omenduz kantu mitikoak eta hain ezagunak ez direnak eskaini zituzten, ilunabarrean hasita.

Gaugiro zegoen. Terraza lepo, baina jendea hankak luzatuta, erlaxatuta ari zen entzuten. Txoko bat egin genuen eskilaretan, giro goxo eta intimo horretan sartu nahian. Ze indarra zerion zuzeneko emanaldi hari! Begi-belarriak adi, porok zabalik, soinuak eta hitzak sabelera iristen ziren, emozioen akuilu. Ortegak begiradarekin elkartzen gintuen denok, gutako bakoitzari kantatzen zigun. Salvadorrek doinu ezagunak jazzaren uretara zeramatzan.

Bukaeran, KantaginJazz-ekin herri bakoitzean egiten saiatzen diren moduan, zumaier musikari bat gonbidatu zuten eurekin jotze-

*KantaginJazz*  
Ainara Ortega (ahotsa) eta  
Iñaki Salvador (pianoa).



ra: Julen Izarra saxojolea; eta zoriak nahi izan zuen Luis Camino perkusiolaria bertan egokitzea. Elkarrekin pieza pare bat jo ostean, kontzertu osoan kantuen artean jarritako umore tonuari eutsiz iragarri zuten “hau tragoa da guretzat,

baina egin egin behar da”, “bai, lehenbailehen eginda hobeto”... inprobisatzea, alegia. “Lau teilatu” kantua interpretatu zuten lauen artean, puntuka; hasieran saxoa ibili zen nahieran, ondoren pianoa aritu zen librean, eta azkenik ahotza askatu zen. Magia momentua izan zen, publikoa jolasean sartu gintuen, melodiak eta erritmoak nora ote zihoazen igarri nahian.

Geroztik, batekin eta bestearekin komentatu izan dugu esker txarrekoa ote den jazz, bai behintzat Jazzalditik 11 egunera eta 31 kilometrotara. Musikariek beste estilo batzuetan masak mugitzen dituztela. Hala izango da, baina emanaldi bildu horrek zeukan energia, pertsonatik pertsonarako konexioa, bakana izan zen. ■



**Estitxu Eizagirre**

## EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**  
1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOARRERA  
HELENTXIN

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Baimen zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)